



LABORARIER

Arnaud Abbadie

Bertsio elektroniko honen egilea: Joxemiel Bidador..

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AbbadieLaborarier.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Satorra

Laborariak baditu aldekoak eta etsaiak bai lurreko bai aireko ihizietan. On baizik ez litake beraz, apur bat bederen, ezagut ditzan zoin zoin diren, batzuen begiratzeko, eta bertzeen ahal oroz galtzeko. Aipa dezagun lehenik satorra. Aldekoa ote dugu satorra ala etsaia? Etsaia, etsaia, batere izaitekotz dautazue guziek erranen berehala. Satorrak ez du gaizkirik baizik egiten; eta beti ari da bere lan tzarrari. Ez daukuia satorrak landak, pentzeak eta baratzeak herak iraulirik ezartzen, hatzeman landare guzien erroak jaten dituela? Laborariaren etsai gaixtoenatarik bat da satorra. Baditeke. Halere ez dezakegun eman gainera merezi duen baino gehiago estakuru; goazin gauzak ongi behatuz. Satorra lurpean bizi da, gu bezalakoa ezin ditake sar haren xiloan jakiteko xuxen zer ari den, eta satorra bera ez da bere berrien salatzale. Bainan badira gu baino asmu hobeko gizonak, satorraren ara eta egitate guziak nolakoak diren atzeman dituztenak. Huna nola.

Jaun jakintsun aipatu bati ekarri zaizkoten bi sator bizirik. Aspaldian ihizi beltz horietarik zombait eskuratu nahia zagon, bere begiz ikusteko, ala diren belar jale, ala xitxi jale. Ezartzen ditu beraz bi satorrak barrika buru motz baten barnean eta emaiten deiezte harat bere baretzeko belarririk hobeenetarik. Biharamunean goizean badoa jakitera zertan ote dituen bere hazkeiak. Zer ikusten du? Barrikaren zolan sator bat harat hunat dabilala lasterka, kexu eta sabela hertsirik. Bertzea nun ote da? Gure jaunak ikertzen du belarraren artean eta atzemaiten zer, zuen ustez? Bigarren satorraren hexurrak ongi murtxaturik. Sator goseak, gau hatez, jan du beraz bere laguna, eta orai berriz gosetua, zer jan bila dabila. Orduan jaunak aurdikitzen dio xori bat bizirik eta hegalak mozturik. Satorra jauzian xoriari gainera doako, hain baita gosea, eta ahoa betez, luma eta hexurrez kanpo, dena jaten du. Gero badago etzanik xoko batean. Eguerdiri buruz bertze xori bat jan zuen, eta halere arratsa gabe,



berriz goseak zerabilan lasterka. Oherakoan gure jaunak eman zion satorrari apo bat. Satorra hurbiltzen zaio berrhala apoari. Apoa hantzen da hapaka, ustez beldur eginen diola satorrari, bainan ez da hau puska haundiari lotzeko herabe. Bizkitartean apokia ez bide zaio laket, ezen sudurraz hunkika ibilirik, uzten du hor apoa eta badabila, xokoz xoko, bertze zer-baiten bila.

Biharamuneko satorra hila zen eta belarrak han zauden osorik, apoa cre bai. Nola uka satorra xitxi-jale dela eta ez belar-jale? Eta zer xitxi jalea? Egun hatez jan ditu sator bat ela bi xori: bi aldiz bederen bere pizua haragi. Izari horren arabera, gizon batek idi baten erdia behar luke jan egunean. Sabelak, den bezala, ezin betez emaiten daukun lanaren gainean, ez ginduke bertze beharrik! Eta satorrak zer haragi jaten ote du lurpean? Hori jakileko litake.

Jakina da hori ere. Nola? Beha hunat, satorrari sabela urratu diote, ez bakar bati, bainan bai aintzi eta xeheki ikertu zertaz zuten betea. Gauza laburzki erran dezadan, huna zer duten beti hatzeman. Satorra hazten da xixariz, lurpeko eta lurpean dauden harretarik gutiz gehienez. Eta nola xixariak aipatu gabe utziz, lurpekoak eta har horiek baitira oro erro jaleak, eta ahal dutenean hazi jaleak, hortarik ezagun da satorrak, bere estakuru guziekin, haduela ere alderdi onik. Hain da gauza hori egia nun lurpeko eta har horietarik ausarki den leku batzuetan uzten baitituzte satorrak ar ditela beren lanari. Ezen bi gaitzetarik ttipiena hautatzen ohi dugu. Badira ere satorrak bizirik hatzeman eta, bertze lur batetarat eremaiten dituztenak, lur hunen xixari, har eta lurpekoetarik garbitzeko.

Bizkitartean aitortu behar da satorrak ez duela lan hori urririk egiten. Onaren aldean badu gaixtoa. Baldin satorrak ez badu belarkirik jaten, egia baizik ez da, bere lurpeko lanetan, bere bideak egitean, mozten dituela hatzeman erro guziak, eta kanporat aurdikitzen duen lurraz zikitzen duela larraina. Horra zertako ainitz begietan duten laborariak, eta hemen haren alde erran ditugun gauza guzien gatik, gogo onez ahal balute, beren lurretarik kanpo eman lezaketen satorraren itxura guzia.

Badira satorraz jabetzeko bideak, bai bizirik bai hilik. Aipatuko ditugu bertze aldian. Zuzen zela iduritu zaut erran gindezan lehenik, anitz burutarik higuingarri izana gatik, baduela ere alderdi onik. Gauza horien jakinera, eginen du bakotzak nahi duena, edo ahal duena.

* * *

Nola atzeman satorra? Lana frango hor. Halere egin ditek gaiza da, bal din ongi ezagutzen badira zoin diren satorraren arak, nola dabilan lurpean, eta noiz edo nola den ari bere lanean. Dezagun lehenik gaiza hau har gogoan. Satorrak badu bere ohantzea eta baditu bere lanbideak. Ohantze hori edo hesi, edo arbola erro, edo harrasia zonbeiten azpian da, aterbean eta bi edo hirur zehe harna lurpean. Ohantze hortarik gain beheiti baditu satorrak ur-bideak, ezen ez du bustian egoitea laket. Baditu ere satorrak ohantze hartarik alde orotarat ibil-bideak, etsai zombait heltzen zaionean ihesari emaiteko, harat edo hunat, beharraren arabera. Bainan bide horiek oro laster bide bakar batetara doatzi. Bide hau da satorraren ihizirako bidea; bide hau satorrak baderama beti aitzina eta huntarik bai ezker bai eskuin egiten ohi ditu hertze bide hatzu laburragoak, inguruetako lurren ikertzeko. Bazter bide horiek erdikoa baino herziagoak dira, ezen satorrak bere gorputzaren heineko egiten ditu bere bideak. Bainan nola erdiko bide hortan baitabila ardura, bai ihizirat doanean, bai ohantzerat itzultzen denem, ibilaren bortxaz zabaltzen du bide hori.

Ageri da orai satorra hatzeman nahi duenak ezagutu behar luke la ohantzetik lankialako bide hori, ezen egunean zortzi aldiz bederen badabila satorra harat edo hunat bide hortan. Bai zortzi aldiz bederen egunean, zeren satorrak baitu lau ala aldi egun bakotx; lehena iguzkia agertzean, bigarrena bederatzia inguruan, hirugarrena bi orenetarik harat eta azkena arratsalde apalean. Ala aldi bakotxaren ondotik nola itzultzen baita bere ohantzerat, lau aldiz bederen egiten ohi du erdiko bide hortan harat hunata, eta ardurago oraino, lanean ari delarik zerbaitek izitzen badu.

Bainan nundik eta nola ezagut bide hori? Ezagun da, ongi behatuz, hirur seinale hotarik. Bide haren gaineko lurra sahetsetakoa baino apalago jautsi da. Bide haren gaineko belarra xuhurrago da eta, bero ari denean, horiago, erroak trenkatuak dituelakotz. Eta azkenekotz satorrak han hemenka kanporat aurdiki lur multzo batean, ikus ezazu norat den lur lerrorik luzeena, haren azpian da aipa dugun bidea. Jakin behar da satorra lur pean beti xuxenka dabilala lurra kanporat aurdiki duen leku batetarik bertzera artean. Haren gorputzak eta laneko tresnek hala nahi dute. Bigarren lur-aurdikigia huntan zehar ditek ezker edo eskuin, zeren han apur hat zabalago egin baitu bere bidea. Bainan handik berriz norat ere, buruz abiatzen baita harat joanen da xuxen bertze lur-kengo ala artean.

Gauzak hola direla zuhaurek ikusteko satorrak lurra kanporat aurdiki duen leku batetarik bertzera har ezazu begira bide xuxena eta



begira hartu bide horren gainean kurutze emazu aitzurraz, hatzemanen duzu azpian satorraren bidea. Baditeke traba batek zeharraziko duela satorra doan bidetik, bainan guti, eta zehartu baino lehen altxatuko du edo apalduko bere bidea, traba horren gainetik edo azpitik joaiteko bide xuxenean aitzina.

Jakin behar da ere satorraren bide horrek, bai erdikoa, bai bazterrekoak, lur axaletik zehe bat barna doatzila, arduenik gutixago, eta beren luzetasun guzian beti abiatu heinari. Bakotxak ikusten du satorraren ohantzerako bidea hatzeman duenak satorra berea duela. Eman dezala arte edo zepo bat bide hartan, ahalaz satorrak azkenik egin lanetarik ohantzerako alderat. Arte edo zepo hori bazter bide batean emanik baliz, hutsik egon liteke, ezen satorra ez dabila bide horietan aitzinago xilatu nahi dituenen baizik, eta hein batetara eremanen geroz, uzten ditu debalde, bertze zonbeiten hasteko. Ezen satorrak beti erdiko bide horri hurbil izan nahi du, bai zerbeitek beldur egiten dionean ihes egiteko, bai ala aldia egin duenean bere ohantzerat lasterrago heltzeko. Ez dut erran nahi gogoeta horiek guziak egiten dituela, bainan badu asmu bat Jainkoak emanik, zoinak egin arazten baitiozkitza gauzak berak balazkitza bezala edo hobeki. Sator hatzemaileen jakitate guzia, erdiko bide horren hatzemaitean da, edo itsura ari dira. Erran dugu nola ezagut diteketa eta hura eza-gutuz geroz nola jabe satorraz. Bertze aldan erranen dugu bertzerik.

* * *

Goazin oraino satorraz; eta ernerik irakur; hobeenerat ari gira. Arterik edo zeporik gabe hatzeman ditake satorra, aitzur on batekin. Ez, aintzek egiten duten bezala, satorra ari delarik, hari gain-behera emanez. Itsura artzea da hori, eta arduenik, debalde artzea. Huna bada nola diren ari lan hortan ikasiak direnak. Eman dezagun lehenik satorrak ez duela lur meta bat baizik eginik, eta hura egin berria. Bazter ezazu satorrak kanporat aurdiki lur meta hori, ager haren azpian den gain-beheitiko xiloa; gero egizu hara eztl edo oiuhu bat, eta eman xilo hartara beharria. Zure eztlak edo oihuak iziturik, adituko duzu satorra badabilela ihes egin nahiz, eta errexki ohartuko zira zoin aldetan den. Orduan aitzurrarekin ken ezazu alde hartarat buruz lurra eta satorra zurea da. Baditake arte hortan satorrak gordetzeko egin duken gain-behera xilo bat. Emazu ur xorta bat xilo hartara, eta satorra etorriko zauzu eskura. Agertu duzun xilotik eztl egin eta, ez baduzu deusik aditzen, seinale da sator bidea badoala bertze lankia zombaitetara.

Satorrak baditu bi lur meta eginik, bata bertzetik bi edo hiru urratsetan zerbeit goiti-beheiti, eta lur hura berri aurdikia da kanporat. Zer egin orduan? Bi lur meta horien artean ager ezazu aitzurraz satorraren bidea. Badakizu bide hura lur meta batetarik bertzera doala xuxenka, zehe bat barnarik. Trenka beraz lurra azkarki, zehe bat zabal, zehe bat luze, zehe bat barna. Hola egin xiloaren bi buruetan ikusiko duzu bi lur metetarat doan sator bidea. Zoin aldetan da ote satorra? Ez dakizu. Nik ere ez. Berak erranen dauzu laster nun den. Zuk ideki xilotik barnerat joanen zaio airea eta jinen da satorra xilo haren tapatzera, lurra berekin ekarritz. Nundik ere ikusten baituzu heldu dela lur hori, alde hartan da satorra. Ken ezazu aitzurraz bidearen gaineko lurra sator metaradino; han hatzemanen duzu zure ihizia.

Huna orai non satorrak badituen hirur lur meta eginik, eta ezagun da egin berriak direla. Azken gauza huni behar zaio beti behatu. Kanporat atera lurra zaharra bada, edo berria izana gatik, ikusten baduzu lur meta heietarik batek baduela bizkarraren erdian xilo bat, seinale da ez dela geihago han satorrik. Edo lurpez edo kanpoz joana da alagia hobe baten bila. Hirur lur meta badituenean bada eginik satorrak, trenka ezazu aitzurrarekin, lehen metaren eta bigarrenaren artean, eta herriz bigarrenaren eta hirugarrenaren artean. Garbi erhiaz xilo heietarik batetara eta bertzera heldu diren sator bideak. Anitz denbora gabe, nun ere baita, etorriko da satorra xilo heien hestera, eta hola agertuko du here burua. Urta orduan aitzurraz, gorago erran dugun bezala haren bidearen gaineko lurra, satorraz jabetuko zira.

Bainan gertatzen da satorrak baititu eginik lau lur meta edo gehiago, sei, zazpi, zortzi. Zer egin orduan? Huna. Trenka ezazu lurra, sator bidearen gainean, utziz ezker eta eskuin bi, edo hirur, edo lau lur meta, satorra zoin ere aldetan baita etorriko da idoki diozun xiloaren hestera. Orduan ikusiko duzu ala zuk egin urrakotik ezker den ala eskuin. Emazu eskuinean dela eta alde hartarik badituzula laur lur meta. Aski dituzu lur meta guzien elgarretarik berextea trenkada batez. Satorrak nahiko ditu xilo hek tapatu, hasiz hurbilenetik, eta hola salatuko dauzu berak nun dagon gordea, eta nun behar duzun urratu haren bidearen estalgia.

Gertatzen da pentze edo landa berean baitira sator bat baino gehiago, lanean ari bakotxa bere lekuan. Orduan heietarik bati beha, egoiteko orde, utzirik bertzeak ar ditela gaizki egiten, hel zitezke orotara. Hortakotz aski duzu sator bideak trenkatu dituzun leketan landatzea, agertu dituzun aho bakotxean, xotx mehe bat, paper puxka bat emanik



gaineko buruan. Satorra jiten denean xilo hetarik bataren ela bertzearen lurrez tapatzera, igituko du xotxa eta eror araziko. Zuk urrunetik ikusiko duzu xotxa erori dela. Joan orduan jauzi batez hara eta iker nun den satorra.

Direnean satorrak berriki egin lur meta batzuetarik hurbil bertze batzu zaharragoak, behar da lehenik ikertu meta berrien eta zaharren artean badenez biderik eta hura trenkatu, satorrak harat ihes egin ez dezan gatik. Baditake ere, gorago erran dugun bezala, sator bideen gainean urrakoak egin eta ez baita satorra heldu xiloen tapatzera. Horrek erran nahi luke satorra, zuk ez dakizun bertze bide zonbeitetarik joan dela here ohandterat. Baldin ezagutzen baduzu ohandte hura nuntsu den, hari ahal bezain hurbil idek ezazu bidea: harako da laster ihizia.

Heltzen bazauzu satorra ar dadin lanean lur meta baten azpitik zu han beha zaudelarik, orduan aitzurraz gain behera emaiteko orde, trenka ezazu ari den meta hartarik bertze metetarako bidea, eta hatzemanen duzu satorra hola preso eman duzun lekuan. Bainan oroit, nola satorraren bidea zehe baten ingurua barna baita lurrean, behar dela aipu dugun lan huntako aitzur luze eta zorrotz bat, eta aitzur hura ernerik behar dela erabili, ezen, arrabotsa adituz geroz, satorra erne eta zalu dabila lurpean. Bertze aldian mintzatuko gira pozoinaz.

* * *

Ageri da ederrago litekela satorraren hatzemaitea, ezen ez haren hil araztea pozoinaz lurpean. Atsegin gehiago ere emaiten du ihiziaren eskuratzeak, eta eskuraz geroz badakigu ez deraukula gehiago kalterik eginen. Bainan hatzemaite horrek ditu lanak. Galdatzen du denbora, begi eta sudur. Eman dezagun, begiz eta sudurrez, ez diola eskualdun laborariak neheri ere zorrik. Bainan nun du satorraren barandatzeko denbora?

Bertze alde sinesteko liteke debru zonbeitik erran diola satorrari noiz den laboraria lanez gainditua; ezen orduan da hura ere ari azkarkienik bere lan tzarrean. Eskas dugunaz geroz denbora bertzela egiteko, ikus dezagun nola pozoinaz leher araz ditzazkegun satorrak, ez bat edo biga aldian, bainan hamar, hogoi, hitz batez, diren guziak, eta hori egun edo gau bakar batez.

Badakigu satorra bizi dela xixari eta har janez. Hazkurri hori behar diogu bada pozoinatu eta harek hatzemanen duen Iekuan ezarri. Xixariak hatzeman errexago dira ezen ez lurpean dauden harrak. Eta satorrari batzu bertzeak bezain laket zaizkonaz geroz, ditzagun lebenik bil

xixariak. Zer xixari? Ez handi, ez ttipi, artekoxe batzuetarik. Hortakotz aski dugu nonbeit iIdo baten itzultzea. Xixari horiek bil, bizirik, gopor edo eltze ttipi batetara, idorrik, erran nahi baita untzi hartan urik eman gabetarik. Aingira mota horrek ez du ura laket, nahiz hezekari den.

Behar ote da bildu xixari anitz? Nor bederak ikus dezala hori, gauza huni behatuz. Sator hatek aski du lehertzeko xixari bakar baten jatea. Bizkitartean on da eman ditzagun biga, edo lau, sator bakotxaren lankian. Beraz zonbat ere sator baituzu begietan, hanbat ere gehiago xixari behar dituzu bildu. Bainan nola ezagut alor edo pentze batean zonbat sator ahal den? Hortakotz oroit satorrak ez direla elgarrekin bizi, umeen hazteko denboraz kanpo. Ikusten dituzunean beraz elgarretarik hurbil, satorrak egin lur meta multzo batzu, badaukakezu sator bat baizik ez dela han. Eta elgarretarik hein bat urrun diren meta multzo bakotxean bada sator bat. Satorrak kanporat aurdiki lur meta horietarik multzo bat ikusten duzun leku bakotxean beharko dira beraz eman xixariak.

Huna nula eta noiz. Aitzur on batekin hatzeman ezazu bi lur meta berriren arteko bidea; zehe bat luze eta orobat zabaleko lur axal bat kenduz ahal oroz hautsi gabetarik. Lur aska hori kendu duzun Iekuan, zehe bat barna, eskuz ager ezazu satorraren bidea eta harat erori purruka guzietarik garbi. Gero ezar xixari bat harat hunat doan sator bidearen bi ahoetan, eta ezar lehenik atera duzun taska bere lekuan, azpiko bidea oso eta garbi uzten duzularik. Egin orobat bertze lur meta guzietan, berriak diren ber, ezen zaharrak beren nausiak debalde utziak dira.

Xixari horiek eman ditezke satorrak kanporat lurra aurdiki duen xilotik behera, lehenik lur hura eskuaz baztertu eta barnerat erortzera utzi gabetarik. Bainan hobe da lehenik erran dugun bezala egitea. Lan horren egiteko ordurik hobeena da argi hastea, orduan baitoa ere satorra lanerat edo jaterat; orobat da harentzat. Bainan xixariak sator bideetan eman gabetarik behar dira pozoinatu. Huna nola. Oroit zira xixariak bildu eta, eltze edo bertze untzi ttipi batean eman ditzazala. Oro bizi dira eta ez daude beren presondegian geldirik. Emazkitzu orai paper zabal baten gainean, ez eskuz, bainan untzia harat itzuliz. Han, harat hunat dabiltzalarik, paper haren gainean, berek beren buruak garbituko ditzuzte. Heltzen direnean paperaren hegira, altxa ezazu hunen bazterra, eta xixariak erdirat eroriko dira, berriz Ieku hobe baten bila abiatzeko. Xixariak hola garbitu direnean berekin zakarzkaten lur purruxketarik, emazkitzu berriz untzian.

Bainan goazin emeki. Baldin ez baduzu untzi haren estaltzeko doia xixari baizik, bota oro batean untzirat. Gero eman pozoina gainera, xixariak estal arte, ez lodi hargatik. Pozoin hura errauts bat da. Nola ez



baita on eskuz erabil dezazun, har ezazu erria baino lodixagoko xotx bat; xotx hari ganibetarekin xabal ezozu buru hat, eta hartaz eman pozoina xixarien gainera. Untzian lehenik ezarri xixari horiek baino gehiago nahi baduzu aldi berean pozoinatu, eman bertze hainbertze heien gainerat eta hok ere bertzeak bezala pozoinaz estal. Hola utziko dituzu xixariak untzian, hamar edo hamabi oren, pozoina ongi har dezaten gatik. Denbora horren buruko berekin dukete satorrari leher egin araztekoa. Aski duzu, goiz aldera, erran dugun bezala eta erran Iekueta xixari heien ezartzea.

Ohartuko zira pozoinak egin duela here lana, satorrak lanetik gelditzen badira. Hortakotz aski dukezu, egun baten buruan, lur meta guzien barreiatzea. Baldin meta berririk ez bada agertzen, seinale ditake zure satorrek azken asean egin dutela. Hel baladi oraino satorra berriz artzera, eman berriz pozoina. Ez du lan horrek luzaz iraunen, eta nausi geldituko zira.

Uli, jinko-oilo eta har

Horra laborarien etsairik gaixtoenak. Etsai xeheak, banaka deus guti litezkenak. Bainan hanbat eta hanbat badira, mota guzietarik, nun hotz beroez eta erauntsi gaixtoez kanpo, ihizi ez deus horietarik heldu baitzaizko laborariari bere min guziak. Eta hirur etsai horietarik gaitzenak dira harrak.

Norbeiti gogora jinen bide zaio, zertako ote emaiten ditugun elgarrekin solas berean, uli, jinko-oilo eta harrak. Ezen ez dute iduri bere-naz elgarri hala atxikiak direla. Ez iduri: bainan hala baita izaitez. Harra ulitik edo jinko-oilotik heldu da, eta harretarik ateratzen dira uli eta jinko-oiloak. Nola hori? Huna. Jakingarri den gauza bat da hau. Uli eta jinko-oiloek arroltzeak erruten dituzte beren orduetan. Arroltze hetarik sortzen da, ez uli bat ez eta jinko-oilo bat, bainan bai zure eta ene baino gehiago uli edo jinko-oiloren egiterik ez duen har bat. Har hura, emeki emeki, batzuetan arte laburrez, handitzen ohi da beti itxura bera daukalarik beti har, ez hegalki ez eta bertze edo zoin arroltze errulearekilako itxurarik gabe. Bizkitartean har hartarik datorke uli edo jinko-oiloa, ez errutez, ez eta ere sortzez; bainan har hura bera da uli edo jinko-oilo bilakatzen. Ikus dezagun xeheki gauza hau. Nihun ez dira hobeki ezagun Jinkoaren jakitate eta indar izari gabeak, ezen ez gauza ttipi eta ez deus horietan.

Lehenik bada uli edo jinko-oiloek erruten dituzte beren arroltzeak, bainan ez itsura, edo nun nahi. Ezen arroltze hetarik aterako den har ilauna, sortu bezain laster hil liteke, baldin ez balu han berean hatz-maiten haren sabelari doakon hazkurria. Hazkurri hura ez dio amak emanen ahora, bertze asko umek ukaiten duten bezala. Errunez geroz, ez uli ez eta jinko-oiloek ez ohi dute beren arroltze artatik hartzen. Bertze alde, gutiz gehienek hilak ere dira umeak arroltzetik atera gabetarik. Eta bizkitartean har hori ezin ditake edo zer janez bizi. Zonbat ere baita uli edo jinko-oilo mota, hanbat ere hazkurri mota dute hetarik atera harrek. Badira harrak aza janez bizi direnak, badira bizi direnak arbi janez; orok ezagutzen dituzte batzu eta bertzeak. Badira gasnako harrak, badira haragikoak, eta bihikoak; badira gerezikoak eta badira sagarrekoak. Hitz batez, zenbat ere baita landare, edo frutu, edo haragi, -edo jateko mota, hanbat ere da har mota.



Eman bazindeza orai azako harra arbian, edo arbikoa azan, gasnako haragian, edo haragikoa gasnan, eta orobat hertze guziez, har horiek, beren gogorako ez duten hazkurri horri, lotu baino lehen, utziko dituzte beren buruak goseak hiltzera. Hauxe da orai gauza guziz miragarria. Uli eta jinko-oilo bakoitza, Jinkoak emanikako asmu batek ekartzen du bere arroltzeen errutera hetarik atera behar diren harrek beren hazkurria hatzemanen duten lekuan. Umeak aza jale dituzten jinko-oiloak errunen ditu bere arroltzeak aza ostoa, bihi jale dituenak bihian, eta bertze guziek orobat, zoinek bere hazkurriari buruz. Nahiz jinko-oiloek ez dakiten zeren beharra duketen heien umeek; ez dakite umerik ukanen duteenez ere. Nundik dakikete? Ez dituzte behinere ikusi eta nehork ez deie holakorik irakatsi.

Nonbeit hor liteke oraino baldin jinko-oiloa bere arroltzeak emaiten dituen gauzetarik jabez bizi balitz. Bainan ez. Jinko-oiloak, irauten dituen egun laburretan, bere hazkurri apurra biltzen du Ili edo loreetan, eta ez aza ostoa edo bertze zerbeit holakotan. Sobera jaun edo andere handi da hortako. Bera lorez lore, hautaka ibili ondoan, joanen da haragi ustelean arroltzen errutera. Zer itxura gabeko gauza! Egia halere.

Beraz amaren asmu horri esker, arroltzetik ateratzean, harrak askiko du den lekuan ausikitzea here hazkurriaren hatzemaiteko. Eta hitz dautzut lotzen zaiola indar guziez. Ezen harra jale handi da. Goizetik arrats, arratsetik goiz, ez da jatetik gelditzen. Jan eta jan, sabela bete eta huts, bi lanak batean, ahamen baten egiteko artea galdu-gabetarik ari da, hartarik atera behar duen uli edo jinko-oiloaren gorputz guzia hartu artean. Ezen bai uli bai jinko-oiloak lehen egunean behinere izanen diren bezain handi dira. Ikusi badituzu uli ttipiak eta jinko-oilo ttipiak, ez uste ukan umeak direla eta gatut ttipiak bezala banditzeakoak. Mota ttipi batzuetarik dira hek. Ttipi sortu eta ttipi hilen dira.

Harrari dago heraz handitzea, arroltzetik abiatu eta, errulearen heineradino. Izari hortara heltzeko, ez dute har guziek orobat denbora behar. Badira lan hortan emaiten dituztenak hirur urteetaradino. Bertze batzuek lan bera egiten dute zonbeit astez, edo ere zonbeit egunez. Hortik heldu da anitz emendatzen baitira. Jan duenean aski, egin duenean aski gorputz, huna nun harra emaiten den bere beteko kisku baten barnean. Kisku hura egiten dute asko harrek beren sabeletik ateratzen duten hari batekin, sare baten pare; bainan hain xehe, hain tinki, hain azkar nun ez baita nihundik ezagun barnean den ihizia, eta sare haren urratzeko indar egin behar baita. Bertze batzuek itzulikatzen ohi dira ostoa baten barnean, eta hunen hegialak elgarri lotzen dituzte ahotik darioten gozo bate-

kin. Erran zindezake ilar bihia lekaren barnean. Badira errautsarekin egiten dutenak kisku hori, ahoko gozoan aratuz erautsa. Badira ere, kisku-ekin egin gabe, lurpean sartu eta, han daudenak.

Arbolen barnean bizi direnek, egur jabez, badute beren alagia, behar duten gordegia, bertze lanik egin gabetarik. Barna joanak badira arbolaren mamian, heldu dira axalaren ondora bainan kanpora agertu gabetarik. Ezen harrak etsai gaixtoak badira, badituzte ere etsai gaixtoak, begia emeki dabiltzanak heien ondotik. Jatetik gelditu eta, beren kuskuan edo gordegian badaute harrak, iduri lo. Ditzagun utz daudela. Bertze aldian ikusiko dugu ez direla egiazki lo, eta harra gorde zen lekutik ikusiko dugu ateratzen uli edo jinko-oiloa.

* * *

Dezagun ikus orai zer ari ote den harra here kiskuaren barnean. Orok dakiten gauza da kisku hartan har sartu eta, handik jinko-oilo edo uli ateratzen dela errulearen itxurala. Nola aldatzen ote den batetik bertzera, eta nola ateratzen bere saretik, jakingarri liteke. Bainan nork daki hori, kiskuaren barnean gordea dagoelarik denaz geroz harra jinko-oilo bilakatzen? Badira bizkitartean gizon deimutsuak gauza hori ongi dakitenak, eta hek erakutsi bidez, bakoitza bere begiz ikus dezake egia diotela. Huna bada nola. Jakiteko da lehenik nola mota bakoitza harrer, age-rian daudeno, ara berak ikusten baiteiezkitegu, orobat ari direla ere kuskuan gordeak daudelarik. Dakienak beraz nola ari den eta nola dabilan hetarik bat, badaki ere nola dabilzan eta nola diren ari mota bereko bertze guziak.

Huna orai ezagutza hortara heltzeko bidea. Harrak burua kuskuan gorde duenetik zenbeit egunen buran, urratzen baduzu haren kuskua, ikusteko zertan den edo zer ari, erran dezakezu mota hartako har guziak orobat direla eta hein berean. Gerorago urra ezazu bertze kisku bat, eta orobat egin bertze zonbeiti, noizetik noizera, ihizia kuskuan dagoeno, bola hadakikezue, xehe eta xuxen, nola harrak bilakatzen ohi diren jinko-oilo. Huna bada, gauzak xeheki ikertuz, zertu duten ikusi aipu ditugun gizon deimutsu eta jakintsunek.

Kuskuan sartu eta egun laburrik barnean, harrari gogortzen ohi zaio larrua, zimurtzen, eta gero erdiratzen bai bizkarrean, bai sabelpean, bai bi sahetsetan. Emeki emeki harrak larru edo zakar hura jauz arazten du, eta bere kiskuaren xoko batetarat arrimatzen. Ikusgarri da orduan gelditzen den ihizia; xuri xuria, berina garbi batek bezala, argia alde batetik



bertze ageri duela; ez da gehiago har, gutiago oraino da jinko-oilo. Zonbeit egunen buruan abiatzen zaizko agertzen errulearen, eman dezagun jinko-oiloaren, itxura guziak; hegalak, zangoak, burua bere begi gogor eta adar mehekin. Egun laburrez batzu eta bertzeak, behar duten izariradino handituak dira; bainan oro gorputzari hertsiki lotuak daude. Erran zindezake haurtto bat bere amak arta handirekin troxaturik emana.

Orai kanpoa nahi luke jinko-oiloak, airea eta iguzkia, bere apaimendura ederraren erakusteko. Bainan nola aterako da bere kuskutik? Balitu oraino har bezala zituen hortz azkarrak, balu orduan zuen buruko estalgi gogorra. Bainan ez; horiek oro galdu ditu bere larruarekin. Berak egin presondegian hil bebar ote du bada ihizi eder horrek? Ez, Jinkoak ez du hein hortaratu, xedera heltzearekin galuztekotan. Eman dio Jinko-oiloari zertaz hauts bere sarea. Zer ote? Nork erran lezaukat hori? Aitor dut niri ja ez zitzautala holakorik gororatuko.

Begiekin urratzen ohi du Jinko-oiloak bere kuskua, ezen begiak berina bezain gogorak ditu, eta legun eta biribil izaiteko orde, ezkainka hautsiak. Jin zaioenean bada kanporat ateratzeko ordua, jinko-oiloak bere begiekin zarra-zarra, hausten du lehenik bere sareko piru bat, gero bertze bat, azkenekotz aski, buruaren kanporat emaiteko. Burua doan xilotik badoake gorputz guzia eta horra nun duzun, gutieneko ustean, jinko-oiloa airean, arinik, alegerarik, eta ederrik.

Orai, xuhur bazira, hatzeman czazu úta hil. Zer, hil dezadan ihizi bat hoin ederra? Bai hil, eta berehala halere. lhizietan, jendeetan bezala, ederra eta ona biga dira. Eta egia baizik ez da jinko-oiloa eder bezain gaixto dela. Bainan zer kalte egin dezake jinko-oiloa bezalako ihizi ilaun batek? Aitor dut, deus handirik ez, jinko-oilo deno. Aste bat iraunen du, ardura gutiago, gorenetik joanen da bi astetara. Lore baten edo bien gozoak haz dezake. Bainan arte hortan erruten ditu arroltzeak. Ez biga edo hirur, bainan ehunka; eta zonbeitak miletaradino eta gehiago. Arroltze hetarik bakotxa emanen du umeak behar duen alagian, eta makurrez kanpo, jinko-oiloaren arroltzetik aterako da har bat, har jale handi, ezin ase bat, zure landareen erro, osto, lore fruitu eta zura bera, gogorra izana gatik, janen dituen harra.

Hil bada, hil jinko-oiloa; hatzeman errex da kuskutik ateratzean, oraino hegalak gogor ditu orduan, bai eta ere arroltzeen erruten ari denean, zeren orduan osoki bere lanari baitago. Bainan bi arte labur horier kanpo, itzala bezain iheskor da jinko-oiloa. Zer egin hada etsai horren osoki nausitzerat ez uzteko? Hil harrak hatzeman errexak dira. Hil beraz

hatzeman har guziak. Leher zangoez, lot eskuez beldurrik gabe. Harra hilez, hilen duzu hartarik atera liteken jinko-oilo errule handia, laster bazter guziak harrez bete litzakena, eta laboraria gosez hil araz baldin ez bali-tu hunek bere alde xori har eta jinko-oilo jaleak!



Har ogi bihi jaleak

Badira hirur har mota ogi bihitik bizi direnak, eta laborariari kalte handia egin ahal dezoketenak, baldin uzten baditu bere bihitegian sartzera eta emendatzera. Har horiek, bertze guziak bezala, heldu dira ihizi hegaldun batzuen arroltzeetarik. Huna nolakotsuak diren errule horiek. Lehen mota, eta orotarik gaixtoena da, marmutxa beltz ttipi bat, zorri larri baten heinekoa. Bizkarra estalia du hegalak bezala zabaltzen ohi diren bi kuskugorrez. Bainan kuskugor heien azpian ez da egiazko hegalik; ezin diteke beraz aira. Ordainez, zalu derabiltza zangoak. Badu ere moko luxe bat ogi bihiaren xilatzeko aski azkarra.

Huna orai nola ari den ihizi gaixto hori bere lanean. Erruteko ordua etorri zaionean, bere mokoarekin, xilatzen du ogi bihia buru bate-tarik, eta xilo hartara berehala erruten du arroltze bat. Gero badoa bertze bihi batean lan beraren egitera, eta hola bihiz bihi, baktotxean bere arroltzea emanez, barnean dueno zertarik. Bainan marmutxa harek bihian egin xiloa, eta hartan errun arroltzea hain dira ttipiak, nun begiz ezin baititezke ikus. Behar dira hortakotz hartu bixta ainitz azkartzen duten berina batzu.

Harra laster ateratzen da arroltzetik, eta berehala lotzen zaio bihiari. Axala osorik utziz, jaten du emeki emeki, barneko irin guzia. Hirur edo lau aste irauten du hazkurri horrek. Azkenekotz bada bera bihiaren betea. Begira, nehork ezin lezake erran, ogi bihia barnez jana dela, hain ederki baitu harrak, irina iretsiz, oso utzi estalgia. Baina har bazindeza bihi hura erien artean, eta zapa, leher liteke bertzeak egiten ez diren bezala. Urratzen baduzu bihi hetarik baten axala, ikusiko duzu harra edo oraino ala dela, edo ari arroltzea errun zuen marmutxaren itxura hartzen. Arroltze baktotxetik ateratzen da beraz harra, eta har baktotxetik errule berri bat. Gauza horiek hurbiletik ikertu dituzten gizonek diote marmutxa hoiritarik pare batek errun arroltzeetarik atera ditezkeela, urte baktotx, zortzi edo hamar mila harretaradino. Balira beraz ehun pare ogitegi batean, jan lezakete hetarik atera harrek, zaku bat ogi ez baita guti.

Ogian arroltzeak erruten dituzten bertze ihiziak dira bi jinko-oilo mota. Jinko-oilo horietarik batzuek arroltzea erruten dute ogi bihiaren gainean. Arroltze hartarik atera harrak, nahiz den ttipia, berak xilatzen ohi du bihiaren axala, eta gorago aipatu dugunak bezala, jaten dio barnea. Han jinko-oilo bilakatzen ohi da, gero erruten hasteko bere aldian.

Bertze jinko-oilo motaren umea ez da orobat ari. Bihiaren barnerat sartzeko orde, ahotik darion hari batekin, lotzen ditu elgarri, bortze sei ogi bihi, eta bera heien erdian dagoelarik, haskatzen ditu bihi hek guziak; gero bere gordegiatik ateratzen da jinko-oilo. Horra etsaiak zoin diren eta nola ari.

Nola ezagut harrak ogian direla? Aski duzu hortakotz hartzea ahur bat ogi bihi, eta urean emaita. Bihi osoak joanen dira uraren zolarat, eta bertzeak, direlakotz arinagoak, egonen dira gainean igerika. Orduan, zure begiz ikusteko etsaia han duzula urra ezazu bihi horietarik zonbeiten axala, eta hatzemanen duzu ihizia barnean.

Zer egin orduan? Ohartzen zirenean harrak badituzula ogian, edo zoin motetako izan dituen, ote da zer egin heien hil arazteko? Anitzek, noizetik noizera, azkarki nahasten dute ogi meta, edo bihitegiaren buru batetarik bertzera aurdikitzen, haiza dadin gatik ongi. Bertze batzuek ezartzen dituzte ogian usain azkarreko belar batzuetarik. Ageri den gauza da bide horietarik batzuek ala bertzeak, marmutxa eta jinko-oiloak ihesi igortzen ohi direla, anitz ere bai lehortzen. Orobat bihiaren axalean diren arroltze anitz galtzen dira. Bainan bihiaren barnean diren arroltzeak eta harrak oso daude, eta ihesi joan diren erruleak berriz itzuliko dira beren ohantzerat.

Huna bada nola egin batzuen eta bertzeen hil arazteko, eta bihiaren osoki garbitzeko. Baditeke ainitzek lana luzeegi hatzemanen dutela. Beharra lotzen bazeie, eginen dute halere, luze izana gatik. Eros ezazu lehenik *sulfure de carbone* deitu ur bat. Begira iduriko du iturritik etorria. Bainan hurbiltzen badiozu sudurra, hatsa gal araziko dauzu bere usain gohaingarriaz. Eta baldin zorigaitzez sua hurbil bazindezako, garretan eman liteke bolbora bezala! Emazu orai zure ogi bihia barrika handi batzuetan. Handiago eta hobe baizik ez dira, lana lasterrago joanen baita. Ez bete hargatik osoki barrika hek, harat hunat ibiliz, ogia ongi nahas ahal dezazun gatik. Barriketan ogia eman eta, ixur ezazu barnerat aipatu dugun hartarik, sei zaku ogirentzat pinta erdi baten heina. Hets gero barrika, inarros ongi, eta utz den bezala, hogoita lau oren. Gero ken handik bihia eta has lan bera zure ogi metak diraueno. Ur hura barrikaren barnean lano bilakatuko da eta itoko ditu bihian diren arroltze eta ihizi bizi guziak, ogiari batere kalterik egin gabetarik. Ezen barrikatik kentzean usain gaixtoa hatzemaite badiozu, kanpora eta, oren laburrik barnean, batere ez duke. Gogo eman ere lan horren egiteari egun argiz, uste gabeen su lot ez dakizun gatik.



Eta orai huna hau azken hitz. Nola hobe baita gaitzetik begiratzeari ez eta haren sendatzea, eman ezazu zure ogi bihia leku argian eta ardura har araz ezozu airea. Aipu ditugun ihizi gaixtoek ez dute ez airea ez argia laket. Ohartzen zirenean jinko-oilo xehe batzuetarik anitz badabiltzala zure ogi metaren gainean, edo badituela harat-hunat hari mehe piru batzuetarik, igi orduan azkarki zure ogia. Jinko-oilo ttipi hek arrultze erruleak dira eta piru hek harrek egin lana. Batzu eta bertzeak seinale dira etsaia ogian duzula. Egon beraz erne, edo zure ogitegitik irin baino gehiago zahi aterako duzu.